

119. zk.
2002ko azaroa



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

Frankeo itundua 48/27

**Mikel
Urdangarin**

heldu artean 36ko idazle fusilatuak euskara elkarteak udal euskal plana aňanako laia aldizkaria...

Xingola

Larunbatetan
DOAN
EGUNKARIArekin



Gaztetxoenen
egunkaria

Komikiak

Denbora-pasak

Posterrak

Erreportaiak

Ipuinak


Eskulanak...



ORAIN 16 ORRI
KOLOREETAN

Astiaaldian jolastuz ikasteko

**Urriaren 26tik aurrera, larunbat eta igandeetan
euskarazko eta ingelesezko jokoak !!**



DOMINO JOKOA

Lanbideak

Hiztegi jokoa:
hitzak euskaraz eta
ingelesez lantzeko.



LETRA JOKOA

Hizkuntza jokoa:
letrak euskaraz
eta ingelesez lantzeko.



**BIKOTEEN
JOKOA**

Hitzak eta marrazkiak
binaka elkartzeko.



**ZENBAKI
JOKOA**

Zenbakiak euskaraz
eta ingelesez lantzeko.

*Kupioa, asteburu oro, ostiraletik igandera publikatuko da.



+ kupioia* + 4,4 €

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Euskal Idunon
Egunkaria

119. zk. 2002ko azaroa

4-5. ORR:

HILEKO GAIK:

Agur, Jimeno Jurio! / Gasteizko Antzerki Jaialdia.
ARABA BIXOTZIAN (Simonides)

6. ORR:

IKUSI-MAKUSI: ZAPateneo

NATURAREN ISLADAK (Iñaki Zorrakin)

7-9. ORR:

GEUgunea: Irakurle kluba, Mintzalaguna,
Geurekin Mendira, Kangeuroak...

10-11. ORR:

LITERATURA / MUSIKA

12-14. ORR:

MIKEL URDANGARIN. Heldu artean

15-17. ORR:

36'KO GUDALDIAN SU-IZKILLATUTAKO IDAZLE GAZTEAK
liburua

18-19. ORR:

ARABAKO EUSKARA ELKARTEAK (II)

20-21. ORR:

UDAL EUSKARA PLANA

23-26. ORR:

AÑANAKO LAIA aldizkari elebiduna

27. ORR:

EMAIZE SEXOLOGIA ELKARTEA: Sedukzioa

28-29. ORR:

FILM LABURRA. Ortzi Acosta-Beñat Fontaneda

31-33. ORR:


Zeuk aukeratu! (AGENDA)

34. ORR:

TINK (Iñigo Sarasolaren komikia)



6. ORR.:



12-14. ORR.:



15-17. ORR.:



23-26. ORR.:

GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Aldizkariako batzordea:** Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.
Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. Testuen orrazketa-zuzenketak: E.B. Maketa: Dalvez. **Marrakziak eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzia:** Ernesto Murillo 'Simonides'. **Kolaboratzaileak:** Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilaletzekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

EROSKI **Arabako Foru Aldundia** **CAJ LARREA**

Agur Jimeno Jurio, "herriko eta herriaren" historialari nafarra!

Herriko zaharregandik jaso zuen Nafarroa barrutik ezagutzeko grina, eta bizitza osoa egin du horretan, erakusten, historikoki Nafarroa euskalduna izan dela

Jose Mari adiskideak orduak eta orduak eman ditu bere bizitzan zehar artxiboetan, euskal usaina zerion edozein gauza aurkitu nahian
Patxi Salaberri, Toponimia ikertzailea

Ikertzaile langile eta zorrotza izan zen... Inurri baten modukoa izan da bere lanean
Pablo Antoñana, idazlea



Nafarroako kulturak gailurreko ordezkari bat galdu du
Jose Maria Satrustegi, euskaltzaina

Nafarroa ofizialak marginatu egin zuen beti, eta zaila izan zen beretzat eguneroko ogia irabaztea, egitura ofizialek inoiz ez ziotelako biderik eman ikertzeko eta lan egiteko
Goio Monreal, NUPeko irakaslea

Nafarroak, eta Euskal Herriak galera handi bat du. Campionen ondoren Nafarroak izan duen ikertzaile zabalena izan dela esan dut behin eta berriz
Joseba Intxausti, historialaria

...Ohartzea gauzak ez zirela kontatu bezala, ez hizkuntzari, ez historiari, ez herri kultura bizitzeko moldeei dagokienez. Kasu bakana da. Oparoa, ikaragarria, ukitutako alorrak ere asko izan direlako. Jimeno Juriok eskola sortu du
Aingeru Epaltza, idazlea

Bazituen arrazoi franko harro egoteko. Horien artean, ezbairik gabe, Euskal Herriko historiari egindako lanak, errate baterako. Esparru akademikoetatik baztertuta izan arren -adinekoen artean, inor ez al da oroitzen nola ukatu zioten Opus Deiko Unibertsitatekoek matrikula egitea Historia ikasketak egin nahi izan zituztenean?-, bere bidea burutu eta zabaldu zuen artaxoarrak

Josu Chueca, historialaria

Esker mila zuri, Jose Mari

Asisko Urmeneta, marrazkilaria eta bere euskara irakaslea

(Euskaldunon Egunkaria, 2002-urriak 4)

Kalitate herrena

Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren kalitateaz hitz egin ohi da. Ez dut zalantzan jartzen, ez; gainera antzerkiaren mundua gogoko izaki egitarauak dakarrenaren berri badut. Haatik, kexu agertu bai, ikusle baztertua sentitzen naiz-eta. Ez nator negar egitera, gasteiztarroi, euskarari dagokiona aldarrikatzera baizik.

32 obratetik 5 baino ez euskaraz, % 15,6! (bakar bat helduentzat, John Wayneren laguna -Ados Teatroa-; gainontzekoak umeentzat). Daturik datu, Gasteiz: 222.000 biztanle inguru (aurtengo datuak); Gasteizko euskaldunak eta ia-euskaldunak (1996ko datuak): 74.000 inguru (30.000 euskaldun, 44.000 ia-euskaldun). Gasteiztarren % 35 gutxi gora-behera, herena baino gehixeago, euskaraz eta euskarazko antzerkiaz gozatzeko prest, beraz! Baina aukera hori non ote dago?

“Euskaraz dagoen eskaintza kulturala mugatua da, beti talde berdinak, antzerki lan berdinak. Eskaintza handiagoa eman beharko lukete, baina hori ere denborarekin etorriko da (2001-maiatza)”, zioen Kultur zinegotzi Encina Serranok, eta dirudienez oraingoan ere arduradunak euskarazko kalitatezko antzerki eskaintza zabalaz ohartu barik dabilta; aspaldi etorria gainera! Hau ezjakintasuna! Gaurko helduentzako euskarazko lanen berri izatea otu lekieke, behinik behin: Trapu Zaharra (kale antzerkia): Paketito, 4. Tenorea; Ttataka: Errudun jaioak (iazko bakarra), Hor dago Koxka, Ekaitz horien eskua; Tentazioa: Komeriaka, Anarkista baten ezusteko heriotza; Maskarada: Kontenedore baten istorioa; Maite Agirre (Agerre teatroa): Emakumeak gori-gori; Ados: arestian aipatutakoa, aurten ekarria; Vaiven: Lotsagabeak, Murphy gainetik kendu ezinda; Hika: Oihanaren legea, Ai, ama!!; eta Kanpingags-Txalo: Biblia osoa gutxi gora-behera...

...Honi eskaintza urria al deritza?

(e.b.z-euskaldunon egunkarirako barkatu ama gehigarriko idatzia. 2002-10-24)

ARABA BIXOTZIAN





Ongi etorri
ZAP
ATENEO
KULTUR
ELKARTEA

Zapatari kalea, 95

01001-Gasteiz

945149379

zapateneo@euskalerrria.org

Leku alternatiboa, material kritikoen banatzailea, topagunea, iritzia sortaraziz... elkartze liburutegia
"Interesgarria baderitzozu proiektuari eta parte hartu nahi baduzu, harpidetza egin dezakezu"

Egin ZAPing betikoari...
...murgildu zaitez
ZAPateneo proiektu berrian!

Asteartetik ostiralera, 18.30etatik 21.00etara
Larunbatetan, 11.30etatik 13.30etara

NATURAREN ISLADAK

Landare batena edo besterena, ez daukagu
hilabeterik loraldi barik.

Urrian huntzarena (*Hedera helix*) izan dugu



GEU AZOKA

Hemendik aurrera iragarkiak aiez ale berritu behar dira. Eskerrik asko!

-SALMENTAK-ALOKAIRUAK

-UMEAK-ETXEKOLANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANA

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko Kangeuroen zerrenda osatzen ari gara. Zerrenda honetan agertu nahiez gero deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsalde, gauez, asteburuak).

Horrela norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

LAGUN HAUEK UMEAK ZAINTEZKO PREST DAUDE

*ESTITXU. Ordutegi guztiak, 651706739

*NAGORE. Asteburuak, 945281124

*PATXI. Arratsalde, 652743205

*MIRIAM. Ordutegi guztiak, 656761588

LAN POLTSA

GEU elkartearen monitore euskaldunen lan-poltza osatzen ari gara ikasturte honetan proposamen berrietan lan egin ahal izateko.

Bidali curriculum txiki bat postaz, edo e-postaz

Arduraduna: Josune

ZATOZ GEUREKIN MENDIRA! AZAROKO IRTEERAK

***Irteera berezia: AZAROK 8, 9 eta 10**

BIDARRAIKO AUÑAMENDI ATERPETXERA

- Irteera Gasteiztik, autoz, ostiral arratsaldean
- Larunbatean, egun osoko mendi ibilaldia: Hirubelakasko eta inguruak
- Igandean, goizeko ibilaldia eta, arratsaldean, itzulera Gasteiza
- Bi gau aterpetxean (gaueko prezioa: 9 euro)

AZAROAK 1 eta 2**GAUEKOAK. GEU ELKARTEAREN EKIMENEZ**

'EUSKARAZ BUSTIZ'
ASTEBURUA

ALDABE ANTZERKIA (ALDABE G.E.)

**EUSKARAZ
BYSTIZ**

AZAROAK 1, OSTIRALA

- IPUIN KONTALARIA: KOLDO AMESTOY. 22.30ETAN.
- KONTZERTUA-MIKEL TELLERIA:
"ZALDIK HARTUTA" DISKO BERRIAREN AURKEZPENA.
23.45ETAN.
- BERTSOLARITZA: KARIDADEKO BENTA ION MAIAREKIN. 1.00EAN.

AZAROAK 2, LARUNBATA

- ARDOAZ ANDER LIPUSEN BAKARRIZKETA, ANTZERKIOLA
IMAGINARIOREN ESKUTIK. 22.30ETAN
- KONTZERTUA: LABRIT. 23.30ETAN
- PATXO TELLERIA ETA MIKEL MARTINEZ ANTZERKI TALDEA
(MASKARADAKO KIDEAK): "EUSKERA SENZILLOAREN
MANIFESTUA". 0.30ETAN.

ETA GAINERA

TXALAPARTA.

TALOA, TXORIZOA ETA SAGARDOA (EURO BAT)

SARRERA DOHAINIK, ANTZOKIA BETE ARTE

**ETA ADI GAUEKOAK-EN BESTELAKO
ESKAINTEZ!!**

- Parte hartu nahi duenak: izena eman 945146296 telefonon (Iñaki) azaroaren 5a baino lehenago, eta 10 euro sartu emango zaion kontu zenbakian

AZAROAREN 17AN BERRIAIN (1493)

Informazioa: 945282316 (Maite)

Irteera tokia (bi irteeretarako): LOVAINA plazan, goizeko 9.00etan
Kotxea baldin baduzu, eraman



**ARMAZOIRIK
GABEKO
BETAURREKOAK**

49

€ TIK HASITA

**ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a**

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33
Vitoria-Gasteiz

www.multiopticas.com
Informa zaitez gure
Kreditu Txartelen abantailez

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBAREN HASIERA ONA!

Gasteizko Irakurle Klubaren aurkezpenerako, jardueraren aperitibo gisa edo, azken bolada honetan oso entzutetsua izan den obra baten inguruko saltsak aurkeztera gonbidatu genuen Hasier Etxeberria idazle eta kazetaria; izan ere, horixe zen eskaini zigun hitzalditxoaren izenburua: "Idazlea kazetari bihurtzen denean", eta, jakina, lana Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan elkarrizketa-liburua zen (Alberdania, 2002). Azken bolada honetako salduenetakoa eta komentatuenetakoa izan da, eta, ondo dakizuenetz, gure bost idazle handienei egindako elkarrizketa sakonek osatzen dute: Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria eta Joseba Sarrionandiari; literaturari buruzko liburu bat, beraz, baina baita gure gizarteari eta kulturari buruzkoa ere.

Bere irakurle senak bultzatuta sortutako liburu bat zela kontatu zigun Etxeberriak (eta hori azaltzeko, Augusto Roa Bastos idazlearen aipu bat gogorarazi zigun: idaztea erraza dela, baina, ai amigo, irakurtzea, hori dela zailena dioen hura), eta, ondoren, Bost idazle...-ren ernatzeaz eta garapenez anekdota bitxi eta dibertigarri dezente kontatu zituen, entzuleon gozamenarako: liburu handi baten atzean ezkututzen diren istorio txikiak, azken batean. Giro polita sortu zuen Hikaateneoan idazle elgoibartarraren jardunak, eta, beraz, esan genezake hasiera ezin hobea eman ziola Irakurle Klubaren ibilbideari.



Asier Etxeberriaren hitzaldia

LIBURUZ LIBURU

Honako hauek dituzue azaroa eta urtarrilaren hasieran komentatzeko hautatu liburuak.

Beraz, heldu horiei eta ez galdu zita!

• **Javier Cillero, Hollywood eta biok.**
Alberdania, 1999

Azaroaren 27a, asteazkena

• **Aingeru Epaltza, Rock'n'roll.**
Elkar, 2000

Urtarrilaren 8a, asteazkena

ORDUA ETA TOKIA: 20.00etan
Hikaateneo-n

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ


ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 · Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza · GASTEIZ

Geu elkartearen ekimenez

MINTZALAGUNA

Lagun berriak egin euskaraz mintzatuz

Ez dugu ekintza berria gure artean, badira urteak Mintzalaguna egitasmoa jaio eta Gasteiz osoan zehar barreiatu zela. Ordutik mintzalagun ugari daude gure hirian, Geurekin lagun berriak ezagutu dituztenak hain zuzen ere. Hastapenetatik gaur artean Mintzalagunak sasoi ezberdinak izan ditu eta garai batez etenaldia egon zen arren egun mintzalagunak martxan darrai, hastapeneko talde horietatik noizean behin elkartzeko

diren adiskideak sortu baitziren. Gaur egun euskaraz mintzatzeko eta lagun berriak ezagutzeko izpiritua mantentzen duten pertsona horiei esker aurten ere Mintzalaguna ekimena sendotuz doa. Euskaraz mintzatzeko, zure aisialdian ondo pasatzeko eta jende berria ezagutzeko aukera daukazu bertan, horregatik animatzen zaituztegu parte hartzera! Egin behar duzuen gauza bakarra Elkartera deitzea da: 945.22.21.53, arratsaldean (Josune). Badira Geurekin hasieratik egon diren mintzalagunak, baita berriak direnak ere.

MINTZALAGUNA EGITASMOARI, ADI!

Euskaraz mintzatzeko, jende berria ezagutzeko, ondo pasatzeko... Astindu lotsa eta deitu Elkartera (94522 21 53 - Josune). Zenbat eta lagun gehiago,



Hauexek dira ekimenari buruzko partehartzaileen iritziak:

• **Leire Agilera (25 urte):** "Hastapenetan etortzen hasi nintzenetik gaur arte oso gustura nago mintzalagun taldearekin. Astean behin gelditzen gara eta jende berria etortzea gustatzen zaigu; taldea oso irekia da eta oso ondo pasatzen dugu".

• **Alicia Lopez Martinez (28 urte):** "Hainbeste denbora daramagunez lagun talde bilakatu gara. Momentuz hastean behin geratzen gara, bakoitzak ordutegi desberdinak ditugunez zaila baita bestelako planak egitea. Dena den, jende gehiago etorriko balitz erraztasun handiagoa egongo litzateke ordutegiaren aldetik talde anitzagoak osatzeko. Jendea etortzera anima dadila!"

• **Patxi Redondo (40 urte):** "Ni berria naiz, aurrekoan egon nintzen lehenengo aldiz, eta nahiko lotsatuta ibili nintzen arren ekimena oso interesgarria iruditu zitzaidan; horregatik, hurrengo astean ere animatuko naiz".



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Elkarlanean argitaletxearen eskutik

Errautsera artekougarra

Egilea: Imanol Zurutuza

Bilduma: Literatura 222 - Orriak: 208

Salneurria: 13 euro - Data: 2002ko urria

Errautsera artekougarra du izenburua lan honek, bizitzaren metafora biltzen duen izendapen batez: errautsera iritsi arte irauten duenugarra. Bizitzaz hitz egiten baitu batez ere liburu honek, baina baita heriotzaz ere.

Emaztea galdu du idazleak. Buruko min bizi batekin hasi zena buruko minbizi gertatu zen eta, mediku eta ospitaleen erromesaldi luze eta nekagarriaren ondoren, bere fin gaiztora iritsi. Bakardadearen zama, atsekabearen tristura, oroitzapenen ziztada ezin eramanik, idazten jartzea erabaki du alargunak: bere bakardade horrexetaz, bere atsekabeaz

eta, batez ere, oroitzapenez.

Sentimentalismotik ihesi baina bere biluztasun osoan zirraragarri gertatzen den estilo dotore bezain zehatz batean harilkatuz doa idazlea bere oihala, txatal ugariz osaturiko puzzlea. Aireportu hurbilean hegazkina aireratzen ikusi eta ama kezkatu bat irudikatzen du, atzerrian gaixo daukan alabarengana doana eta bere barruko korapiloa nori kontatu ez dakiena; irakurraldi sakabanatueta bizitzaz eta heriotzaz egindako aipuak jasotzen dizkie etengabe atzoko eta gaurko filosofoei, hango eta hemengo poetei, bat eta bakarra balitz bezala gizon-



bihurtua. Errepikaezina baita gizaki bakoitzaren bizitza, errautsera arte irauten duenugarra.

Imanol Zurutuza (Usurbil, 1961). Arabako Buruaga herrian bizi da. Aspaldi egin zuen literaturan sarrera, Behin bitan ipuin-liburuarekin (Elkar, 1985), eta Irun Hiria irabazi zuen handik urte gutxira Haizeak iparlaino beltzak dakartzanean istorioarekin (Kutxa, 1989 edo Ipuin bakarrak bilduma kolektiboan, Elkar, 1994). Marguerite Yourcenar-en Ekialdeko Kontakizunak (Ibaizabal, 1996) aldatua du gurrera.

LEHIAKETA:

Estatu mailako zer literatur sari eman zaio euskal idazle bati urrian? Zein idazleri, zein lani? Aurkeztu al da lan hau Geu aldizkarian?

Bidali erantzuna postaz edo e-postaz eta zorte on!

Geu aldizkaria - Pedro Asua, 2-3.a
01008-Gasteiz - geugaste@grn.es

Urriko lehiaketaren irabazlea:

EVA CASIMIRO.

Zorionak!

Urriko galdera:

Ze proiektu berri jarriko da abian urritik aurrera Geu elkartearen ekimenez eta Geu aldizkariaren laguntzaz, literaturarekin zerikusi zuzena duena? Zein egunetan hasiko da?

Erantzuna: *Gasteizko Irakurle Kluba. Urriaren 9an*

KOMIKIA

Euskal Herriko kostaldea


Gidoia: Joseba I. Lugaesaresti
Irudiak: Eva Garces
Sauré argitalatxea

Europako Iparraldeko bid neskak, Petra-k eta Karen-ek, elkarrekin topo eginen dute Ibaizabaleko Itsasadarrean dabilzala.

Adiskide egin eta gero, elkarrekin joanen dira ezagutzen Euskal Herriko kostaldea.

Zirrara berezia eginen die hirigintzan izandako berrikuntzak, zenbait ekosistemaren bere-oneratzak eta jendeen adeitasunak, zeinek herriko historia zaharrak kontatzen dizkieten.

Euskal Herriko kostaldea



Geu aldizkariak gomendatzen du:

benito lertxundi nere ekialdean elkar

Dudarik gabe, bere disko landu eta garatuena dugu. Errepertorioaren berezko balioaz gain, moldaketen aberastasunak eta amaierak soinuak kantuen komunikazioa areagotu eta biderkatzen dute, autorearen heldutasun artistikoa nabarmen utziz. Itsasoa eta bere nostalgian enbatak, Fernando Pessoren poesia zorrotz bezain hunkigarriak eta kanta guztiak ferekatzen dituen sentipen erlijioitsuak, ekialdeko eguzkiaren zirrintak itsasoan bezala, mundu magiko erakargarri bat irudikatzen dute: Benito Lertxundiren ekia.

www.elkarlanean.com/benitolertxundi

Kontzertua: AZAROAK 28-GASTEIZ.

Principal antzokian, 20.30etan.

Sarrerak salgai bertan: 18 euro



petti etxeko uzta gaztelupeko hotsak

Disko honetan Pettik bere alderdi elektriko eta zuzena erakutsi nahi izan du, Neil Younge bezal hor nonbait erdi-ezkutuan gordeta zuen hori: kantu sakonak, elektrikoak,

gitarroak, erritmikoak eta bihotzetik urdailera jotzen dutenak, batzuetan Tom Waits edo Mikel Laboa gogora ekartzen dituztenak. Eszenatokietan ondutako alderdia zuen hau, baina orain arte diskoan argitara eman gabea. Lan honetan Berako musikari taldea dago -Fernan eta Joseba Irazoki, Iñigo eta Maikel-, Pettiren alboan beti izan direnak eta hamaika lehiatan -M-ak, Onddo...- jorratutakoak.



adaka 
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35

Mikel Urdangarin:



“Nire kezkei ihesbidea emateko eta barruak baretzeko kantatzen dut”

Mikel Urdangarin abeslari zornotzarrak bere bosgarren diskoa kaleratu zuen urrian. ‘Heldu artean’ lanak folk akustikoaren bidetik segitzen du, baina aurreko diskoak baino “irekiagoa” dela dio Mikelek. Barruak asetzeko balio izan dion diskoa da. GEUk ere Mikel Urdangarinaren barruak ezagutu nahi izan ditu.

*Edurne Begiristain
Arg.: Edorta Sanz*

- NOLA DEFINITUKO ZENUKE DISKO BERRIA?

Aurrekoak baino irekiagoa da, oso intimoa, akustikoa, hurbilekoa eta berezia da. Hala ere, definitzeko zailagoa dela uste dut, kantu bakoitza mundu propioa delako. Abesti bakoitza leiho ireki bat da eta hamabi leiho dira, baina etxe beretik irteten diren leihoak dira guztiak. Eta begirada ona etxe horretako bizilaguna da, alegia, ni. Gertatzen dena da leiho bakoitzetik paisaje desberdinak ikusten direla, eta nik sentrazio hori antzematen dut diskoa entzun dudanean.

- ZERK BULTZATU ZAITU ZURE INTIMITATE HORI AZALARAZTERA?

Hiru urtetik hona soilik musikan zentratuta egon naiz, edo agian, deszentratuta, eta ez dut denborarik izan nik nahi dudanari eskaintzeko.

Barruko gogoak azaltzeko, gauzak kontatzeko gogoak daukat, emozio-natzeko... halako gogo batek bultzatzen baitu pertsona bat kantuak egitera. Nire kasuan behintzat hala da. Nire kezkei ihesbide bat emateko, nire barrua baretzeko, nolabait askotan gordetzen edo izkutatzen dituzun gauzak agertzeko kantatzen dut, alegia, konfesio bat egiteko.

- ZAILA IZAN BEHAR DU INTIMITATE HORI KANPORATZEAK...

Nik uste dut jaiotzen garenetik pentsatzen hasten garen arte, gizarte honek hainbat eta hainbat estalki ezartzen dizkigula, eta bere erara janzten gaituela. Artistak bere espresibidea erabiltzen du estalki horiek apurka-apurka kentzeko, norberaren arrazoen bila hasten da, eta horretarako estalkiak kendu behar

ditu. Nire kasuan, nik kendu behar ditut, onartzen baitut estalki pilo bat ditudala, eta askotan kantu bat egitea estalki horiek kentzea da. Badakit hori ez dela egun batetik bestera egiten, denbora daramala, baina ez daukat presarik. Hori bai, sekreturik maiteenak norberak gordetzen ditu, eta nire kasuan hala da.

- DISKOA FAMILIARI ETA GERTUKO LAGUNEI ESKAINI DIEZU.

Duela urtebete hildako lagun bati dedikatuta dago espreski. Disko honetan badago gogoeta bat: mundua dagoen moduan egonda ere, bizitza ederra dela eta merezi duela bizitzea; merezi du bizitzea tristura, eta poza, euforia, eta nahigabea... Mezuren bat helarazten badut horixe da, zailtasun guztien gainetik hemen aurrera egin behar dela, eta segundu

bakoitza preziatua dela. Saiatu naiz infernura jaisten baina, betiere bizirik ateratzen. Eta horretarako lagunartea oso inportantea da. Nik ez daukat gaitasunik mundua ulertzeko, baina bai, ordea, laguna eta etsai txikia ulertzeko.

- LETRA GUZTIAK ZEUK IDATZI DITUZU, KIRMEN URIBEREN 'MAIATZA' IZAN EZIK. ZERGATIK ABESTI HORI?

'Maiatza' hartu dut poema ederra iruditzen zaidalako, diskoarekin bat datorrelako erabat. "Edan dezagun bizitza hau tantarik tanta eta bakarra galdu gabe", ideia horixe islatzen du. Gainontzeko hamaika kantak idazteko izugarrizko beharra sentitzen nuen. Akaso beste lagun batzuek txukunago idatziko zuten, baina hori gutxienekoa zen disko honetan. Nahiago nuen neuk idaztea, nahiz eta letra eskasagoa izan.

-BI KANTAK EUSKAL GATAZKA ISLATZEN DUTE.

Bai, horretaz hitz egiteko beharra sentitu dut. Abesti bat dezepzio kantu bat da, ohitura bilakatzen ari denari ohitzen ez den pertsona batez ari da. Askotan klabe horretan bizitzeak pertsonari gizatasuna kentzea dakar.

DI-DA

- Amets bat? *Bizitza honetan alperrik igarotzearen sentsazioa sekula ez izatea. Honek guztiak zentzua izatea.*

- Amesgaiztorik? *Bai, asko afaltzen dudak bakoitzean.*

- Txikitan zer izan nahi zenuen? *Garai batean okina (ogia izugarri atsegin dudalako). Eta gero Athleticeko jokalaria.*

- Gustuko musikari bat? *Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Txuma Murugarren, Anari... asko!*

- Liburu bat? *Gehien hunkitu nauena Kirmen Uriberen "Bitartean heldu eskutik" poesia liburua izan da. Eleberrian, berriz, Atxagaren "Behi euskaldun baten memoriak".*

- Telebista saiorik? *ETBn gauza gutxi. Nire ustez ETBk iraultza sakona behar du, jende gazte, adimentsu eta fantasiazalearen laguntza behar du. Dinosauruen berezko tokia ez da telebista.*


- Egunkaririk? *Euskaldunon Egunkaria etxean jasotzen dut.*

- Eta GEU aldizkaria? *Ez, baina harpidedun egingo naiz.*

- Bizitzeko herri bat? *Hiri bat Gasteiz. Eta herria Lekeitio.*

- Gasteizek duen onena? *Lagun artean nagoela.*

- Eta txarrena? *Hain espazio txikia izanda zein arrotz sentitzen den euskal kultura. Ez zait logikoa iruditzen.*



Eta kantua, hain justu, neke horren islada da.

- MUSIKARI BERRIEK KOLABORATU DUTE LAN HONETAN, EZTA?


Bai. Bi musikari berri daude: Julio Andrade (kontrabaxua) eta Blas Fernandez (bateria), eta ibilbide berri bat hasteko bidelagunak dira. Orain arte izan ditudan musikariengandik ikasteko aukera izan dut, musikaz nik baino gehiago dakitelako. Niretzat eskola bezala da. Asko estimatzen dut haien presentzia.

- ETA BETI BEZALA JONATHAN BEWS ESKOZIAR BIOLIN-JOLEAREN LAGUNTZA IZAN DUZU.

Bai, Edinburgon oportetan nengoela ezagutu nuen. Nik kitarra eskuetan nuela eta berak bibolina zuela ezagutu genuen elkar. Elkarrekin kanta batzuk jo genituen, eta kimika egon zen gure artean. Euskal Herrira etorri zen, eta oso harreman polita hasi genuen. Musikari izugarria da eta gainera lagun handia.

- KANTA BAT KATALANEZ ABESTEN DUZU. ZER DELA ETA?

Katalana sei hilabetetan ikasi nuen, lagun katalandar bati esker. Egun batean katalanez erakutsi behar zidala esan nion, berak hitza hartu eta sei hilabetez katalanez ikasten egon naiz. 'On vas' abestia lagun horri egin diodan keinu bat izan da ●



ZER DA ZURETZAT...

KOMUNIKAZIOA: Kantutan ezinbestekoa dena.

INKOMUNIKAZIOA: Euskal Herriak onartu ezin dezakeen luxua. Bakardade latza.

LAGUNAK: Nire ondoan bizirik dirautenak, bidean gelditu direnak, ahaztu ditudanak eta etorriko direnak.

SEXUA: Plazer iturria. Mundu bat.

GORROTOA: Orain arte sentitu ez dudana emozioa... baina amorrua sarritan sentitu dut.

MAITASUNA: Maitasunak zu topatzen zaitu. Ez da bere bila joan behar.

HERRIA: Herri bidean dagoen herria.

TABERNAK: Lagunekin goatzeko leku aproposak. Ahaztu gabe mozkorak hartzeko ere balio dutela.

GASTEIZ: Akaso egunen batean barrenago sentituko dudana zerbait.

ZORNOTZA: Zornotzarra beti izango naiz, haurtzaroa han igaro dut eta.

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

Garagardotegia

Ostiral arratsalde,
larunbatetan eta
igandeetan
IREKITA

Gerentzia
berria

La Blanca

* Oilasko
erreak

**UKONDO
ERREA
DAGO**

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

Euskeraren Erri Akademia

'36'KO GUDALDIAN SU-IZKILLATUTAKO IDAZLE GAZTEAK.

Lauaxeta-Lurgorri-Josu Peña (Aitza)' LIBURUA

EUSKERAZAINNTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Académie Populaire de la Langue Basque

**36'KO GUDALDIAN
SU-IZKILLATUTAKO
IDAZLE GAZTEAK**

Lauaxeta - Lurgorri - Josu Peña (Aitza)



PEÑATAR JOSU (AITZA)
IDAZLE GAZTE SU-IZKILLATUA



Leire Lpz. de Aberasturi

Aranzadi Elkarteak egindako aurkikuntzek 1936ko gerran gertatutakoak eta, batez ere, hildakoak gogora ekarri dituzten unean argitaratu du Euskerazaintza-k "36ko gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak" liburua

Historiaren garai ilunak gogoratzen

Euskerazaintzak pentsatu, idatzi eta argitaratutako liburuak gerra garaiko giroaren berri emateaz gain, Francoren aldeko armadak hildako hiru idazle gazteren bizitza eta lanak gogoratzen ditu, bi helburu lortzeko: Lauaxeta, Lurgorri eta Josu Peña, Aitza, ezagutzera eman eta beraien idazlanak zabaltzea.

"Egungo gazteek bisigodoen garaiko historiak beza-la ikusten dituzte gerra zibileko kontakizunak, baina guk horiek bizi izan ditugu", azpimarratu du Euskerazaintzako kidea eta liburuaren egileetako bat

den Martin Olazarrek, 36an gaztea zen belaunaldia oraindik ere bizirik dagoela gogoratuz. "Eta badakizu zer esaten den, historia ahazten duten herriek hori errepikatzen kondenatuak daude", dio.

Hiru izen propio

Hiru izen propiotatik abiatuta ekin diote liburuaren egileek historia berreskuratzeari. Lauaxeta, Lurgorri eta Aitza euskal kultura eta euskararekiko kezka berezia zuten hiru gazte abertzale ziren 1936an. Guda hasi eta urte eta erdira hilik zeuden, faxistek fusilatuta.

Asko eta asko izan ziren urte ilun eta latz horietan fusilatutakoak -edo su-izkillatuak, liburuaren egileek

erabiltzen duten hizkeran- eta horiek guztiak gogora ekarri nahi izan dituzte Euskerazaintzakoek, liburuia "omenaldi bat egiteko asmoarekin" sortu baitzen. Orriak eta orriak betetzen ditu fusilatutako idazle, abade eta lekaimeen zerrendak; atal berezi bat dago Gasteizko Elizbarrutiko apaiz eta mojen deituekin; eta hilabetez hilabete eta gudaldi eta espetxe bakoitzean izandako hildakoen kopuruak ere agertzen dira. Liburuaren azken zatian aipaturiko izen guztiak agertzen dira, alfabetikoki ordenatuta, irakurleak erraz aurkitu eta irakurri ahal izateko.

Elizgizon eta emakumeen zerrenda luzea da, eta gainera Errepublika edo Eusko Jaurlaritzaren aldeko apaiz eta lekaimek jasan zuten errepresio eta zigorrei buruzko atal bat dauka Euskerazaintzako lanak. Zergatik? "Zeintzuk dira santu, zeintzuk izendatu dituzte santu? Gorriek hildakoak! Eta besteak?", galdetu du Martin Olazarrek, 1936an legalitatearen aldekoekin egindako injustiziak gizartearen arlo guztiak hartu zituela eta oraindik ere dirauela gogoratuz.

Ezberdintasunak

Historiak, edo historia kontatzen dutenek, ez dute berdin tratatu Lauaxeta, Lurgorri eta Aitza. Lauaxetaren bizitza eta lana guztiok ezagun dira, baina Aitza eta Lurgorri nahiko ezezagunak dira. Horregatik, Aitzak idatzitakoak, orduko aldizkarietan argitaratutakoak, hitzez hitz jasotzen ditu liburuak, eta Lurgorrik utzitako lanaren berri zehatza ere ematen du.

Aitzak idatzitakoa hitzez hitz jaso du liburuak, esan bezala; horrek esan nahi du orduko giro eta idazle gaztearen lana ezagutzeko aukera izateaz gain, garai horretako euskaraz irakurtzeko parada ere daukala irakurleak.

Liburuia bera ez dago 36ko euskaraz idatzia, baina ezta batuan ere, "Euskaltzaindiak batuaren alde egin baino lehenago erabili arauen arabera baizik", Olazarrek azaldu duenez. Izan

**"Historia ahazten
duten herriek hori
errepikatzen kon-
denatuak daude"**

**Aguraingoa zen Jose
Mari Azkarraga,
Lurgorriren aita**

ere, Euskaltzaindiak euskara batuaren aldeko apustua egin zuenean sortu zen Euskerazaintza, Euskeraren Erri Akademia, hartutako bidearekin ados ez zeudenen laguntza eta babesarekin.

Erabilitako hizkera ez dela liburuia ulertzeko oztopo dio Martin Olazarrek: "Gehiago dira batua ulertzen ez duten euskaldun zaharrak, liburuia ulertuko ez duten gazteak baino". Hala ere, "hasiera batean batzuek eragozpenak izan ditzakete irakurtzeko" onartu du, baina gero aberasgarri izango dela gaineratuz.



NON BAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE EUSKAL DENDAK

GUTXISOLO ELKARTEA:



Villanueva de Oca-n ospatu aurtengo Euskal Jaia (Argantzun udalerrria)

EUSKARA TREBIÑON HERRIZ HERRI

Leire Lpz. de Aberasturi

Trebiño Arabako hiriburu bihurtu zen euskarari dagokionez iazko Araba Euskaraz Argantzunen ospatu zenean. Orduko jaia egun batekoa izan bazen ere, euskararen alde lan egingen dutenen indar eta ekimenak ez ziren hor agortu. Trebiñoko Gutxisolo Euskara Taldeak sei urte darama euskararen alde lanean, 1996ko Trebiño Egunaren inguruko ekitaldietan jendaurreko aurkezpena egin zuenetik.



Iaz bihurtu zen legezko elkarte, "dirulanguntza gehiago lortuko genituela uste genuelako, baina ez da horrelakorik gertatu", azaldu du Mikel Arribasek, Gutxisoloko bultzatzaile eta kideak. Elkarteko kideen buruhausterik handienetakoa diru faltak sortzen duen menpekotasuna nola gainditu bada ere, nola edo hala aurrera egitea erdietsi dutela azpimarratu behar da: "urtero-urtero laupabost, edo sei, ekitaldi egitea lortzen dugu".

Gutxisolok duen dirua, batetik, Argantzun eta Trebiñoko Udalek emandakoa da eta, bestetik, Arabako Foru Aldundiaren euskara klaseak antolatzen dituzten dirulaguntza deialditik datorkio. "Baina erakunde publikoek ematen duten dirulaguntzen menpekotasun hori gainditzea oso zaila da, gainera Gutxisolo elkarte bezalako taldeen betiko arazoa da".

"Eutsi!"

Zailtasunak ikusita, etorkizunerako asmoei buruz galdetzean, "eustea" esan du Mikel Arribasek, birritan pentsatu gabe. Orain artekoa-ri eustea ez da inolaz ere aukerarik txarrena. Urtero zenbait ekitaldi burutzeaz gain, euskara ikastaroak antolatzen dituzte AEKrekin elkarlanean, eta bertako euskaldunei topagune bat ematea lortu dute.

Gutxisolokoak asteartero biltzen dira Argantzungo Udaleko areto batean, "eta gonbidapena egiten diegu inguruko euskadun guztiei, baita euskaldutze prozesuan ari direnei ere, hara joan eta euskaraz hitz egiteko". Mintzapraktika eta aisialdia uztartzeko aukera polita, beraz.

Elkartearen partaidetzari buruz, sorrera garaian zegoen jendea bere horretan jarraitzen duela esan beharra dago, "nahiz eta heldu egin ahala erantzukizun gehiago eta denbora gutxiago eduki". Hala ere, "denborarekin hazi egin da elkarte, baina bazkide gehiago behar ditugu, noski", esan du Mikel Arribasek.

Trebiñoko berreuskalduntze prozesua Araban gertatzen ari denaren oso antzerakoa dela azpimarratu du Arribasek, "egun bertako umeen % 75 Gasteizera doaz ikastera, gehienak ikastolara".

Haurrak helburu

Haur eta gazteak dira, hortaz, Euskal Herri osoan bezala, berreuskalduntze prozesuaren protagonista, horregatik Gutxisolok egiten dituen ekitaldi gehienak haiei begira antolatzen dira. Baina ez dira haurrak helburu bakarra, horien gurasoengan ere pentsatzen baitu Gutxisolok: "eredu euskaldunetara ikastera daramatzaten

neska-mutilen gurasoak euskarara hurbildu nahi ditugu, gure hizkuntza etxeetan present egoteko, erabilgarria izan dadin". Egun, helduen euskaldutzerako bi talde daude Trebiñon eta duela sei urte hasitako katea ez da eten, urtero gutxienez bi talde osatzea lortu dute-eta.

Haurrak, gazteak eta helduak dira Gutxisolo elkartearen helburu soziologikoa. Helburu geografikoa, berriz, Trebiño osoa da; euskara herriz herri hedatzea, "landatzea", Mikelek dioenez. Horregatik, Euskara eguna urtero herri ezberdin batean ospatzeko ahalegina egin dute, "aurten Trebiñon, iaz Argantzunen", gogoratu du Mikelek.

ARABAKO EUSKARA ELKARTE GEHIAGO (jarraipena)

• AIARA

HOGEITALAU Elkarte
(Topagunean federatuta dago)

Sortu: 2001

Non jardun: Aiara Udalerriko herrietan

Ekintzak: Urte osoko programazioa, batez ere umeentzat baina gurasoen partehartzea ere bultzatuz. Normalean igande arratsaldeetako ekintzak izaten dira (magia ikuskizunak, ipuin kontalariak, txotxongiloak, antzerkia, askariak, tailerrak, irteerak...), baina asteburu osoko irteerak ere egin izan dituzte Amurrioko Aspaltzarekin elkarlanean (Port Aventura, egonaldia aterpetxean...). Udazkenetan gazte eta helduentzako hitzaldi, diapositiba emanaldi... ziklo bat antolatu ohi dute.

Etorkizuna:

- Elkarte bera indartzea eta gazte gehiago erakartzea bere ingururura.
- Umeentzako programazioa osatzea (barietatean eta maiztasunean).
- Gazteentzako eskaintza indartzea.
- Eskualdeko gainerako taldeekin harremanak estutzea eskualde mailako proiektuei elkarlanean heltzeko.

Kontaktua: Aiarako Kuadrilla (945399122).

E-posta: aiara2001@jazzfree.com

• AMURRIO

ASPALTZA Elkarte
(Informazioa: Amurrioko Udala)

GASTEIZKO UDALAREN EUSKARA PLANAREN nondik norakoak

Zaila da Udalak onartu berri duen euskara plan honen nondik norakoak agertzea. Izan ere, Udalak hasiera batean aurkeztu zirraborra berregituratu egin behar duen aitzakia dela eta, momentuz (aldizkaria itxi orduko aldaketarik ez zegoen behintzat) plana ez dago irakurtzerik, antza egin gabe baitago. Hori dela bide, argi dagoen bakarra Gasteizko Udalak euskara plangintza abian jarri nahi duela besterik ez da, behinik behin iraganeko urriaren 18ko Udalbatzarrean horrela onartu zuten-eta.

Jarraian, orain arteko pausoak nola gauzatu diren azaltzen da; prozesu honen inguruko azalpen kronologikoa dugu honako hau.

- 2002ko maiatzaren 6ko data du lehendabiziko zirriborroak: "Vitoria-Gasteizko Udaleko euskara erabiltzeko normalizazio planerantz" dio. Txostenak dituen 33 orrialdeetan barrena honako parrafo hauek irakur daitezke (laburpen gisa hautatutakoak):

"Plana ezartzeko aldiak hurrengo plangintza aldia izan beharko luke (2003-2008). Aldi horren hasiera bat letorke nahitaez bete beharreko indize berrien argitalpenarekin; biztanleria eta etxebizitzari buruzko estatistikan oinarrituz lortzen dira indize horiek, jakina denez. Geratzen diren hilabeteak zirriborro honetan azalduko elementuak garatu, eztabaidatu eta birbiltzeko

erabil daitezke, bai eta interesgarritzat jotzen diren beste elementu batzuk eransteko ere".

"Hots, batetik, barneko lana egin beharra ikusten da, bai sailen barruan -Funtzio Publikoa, Lehendakaritza, Kultura, Hezkuntza eta Kirola batez ere- bai erakunde autonomoetan eta udalaren sozietate publikoetan. Bestetik, osagarri gi-sa, gizarte mugimenduekin egindako lana egongo da, berezko lan talde bat osatuz bideratu beharko dena, edo herritarrek parte hartzeko jadanik martxan dagoen kontseiluren batean txertatuz. Udalaren barrutik zein kanpotik iristen diren proposamenak eta iradokizunak Lehendakaritza Saileko batzordean edo horretarako sortzen den beste batean bizkortasunez aztertu beharko lirateke".

- Hasiera batean Udalak aurrera atera behar zuen plan horren berri izan zuten hainbat gizarte talde eta euskal elkarteak irailaren bukaeran deitutako bileran.

Bertara Berritzegunea, Denon Eskola, LAB, ELA, Euskaltzaleon Elkargunea eta Euskara Zerbitzuko teknikari bi joan ziren. Jaso ondorioa ezkorra izan zen, hots, kritika orokorrak zihoenez: "metodologia zalantzan jartzen da; ez da plan zehatza, ez dago landuta, ez dago diagnosirik, plana gauzatzeko lan taldea osatzea beharrezkoa da", besteak beste.

- Gauzak horrela, ekarpenak egiteko epea irekita zegoen, urriaren 15a alegia, eta ordurako talde/elkarte bakoitzak bere proposamena eraman beharko luke; ez zen horrela egin. Arrazoiak: Udalak urriaren 14ko udalbatzarrean komunikabideei azaldu bezala, hasiera batean Eusko Jaurlaritzak egindako planean oinarritu behar baziren ere, orain momentuz zirriborroa berregituratu behar da. Hori dela eta, GEUK Euskaltzaleon Elkarguneak adierazita jakin ahal izan zuen bezala, Udalak

Euskaltzaleon Elkarguneak Udalaren Euskara Planari egiten dion erantzuna eta irakurketa honako hau da:

"Euskara Plana diseinatzeko orduan ezinbestekoa iruditzen zaigu hasierako nondik norakoak azaltzea. Gasteizen euskarak dituen zailtasunen gainetik Euskara Plan batek baldintza batzuk bete behar ditu.

Gure ustez Euskara Plana diseinatzeko orduan garrantzi handia du jarraituko den metodologiak. Planak gizartearen eragina izan nahi badu ezinbestekoa da Gizarte Eragileen partehartzea ziurtatzea, baita gizarte osoarena ere. Hori da Planaren arrakastarako lehenengo baldintza: gizartearen partehartzea eta Plana gizarteratzea. Gizarteak berea egin behar du planak arrakasta izatea nahi badugu".

Eginiko ekarpenak:

• PLANA DISEINATZEKO BATZORDEA

Plana diseinatzeko aukera eman behar zaie gizarte taldeei. Batzorde hori irekia, partehartzailea eta loteslea izan behar du. Irekia parte hartu nahi duten talde guztiei, bereziki euskalgintza, hezkuntza edo helduen euskalduntzean lan egiten duten taldeentzako. Lan dinamika partehartzailea izango du eta eraginkorra izatea nahi badugu taldean lan egingo du. Lantaldeak proposamenak egiteko aukera izango du eta bertan hartzen diren erabakiekiko loteslea izango da.

Lan taldeak epe finkoetan lan egin beharko du, Udaletxearen teknika-rien koordinaziopean.

• DIAGNOSIA

Plana egin baino lehen diagnostika egitea ezinbestekoa da. Benetako egoera ezagutu gabe ez dago neurriak proposatzerik. Diagnostika egiteko Gizarte sektoreen partehartzea behar-beharrezkoa da, bestela pro-

posatzen den neurria eragin gabekoa izango da, beste bide batetik betetzen den eskaera izango da (aribidez 25. orrian proposatzen den 06 neurria "Ikastetxeen errotulazioa era egokian jartzeko laguntza" NOLEGA programari jarraituz indarrean dagoen ekimena da) ala lekuz kanpo izango da (aribidez 31. orrian "KOMUNIKABIDEAK" atalean proposatzen den 01 neurria, "Udalak herri edo eskualde mailako komunikabideetan tokian tokiko euskalkiaren erabilera bultzatzea"). Hau guztia ekiditeko ezinbestekoa da diagnosi zehatza izatea.

• HELBURUAK

Diagnostika egin dagoenean, baina plana egin aurretik; Udalak bere hizkuntza politika zehaztu behar du: hizkuntzari emango zaion tratamendua, udalak normalizazioa aipatzen duenean zer adierazi nahi duen, zer-nolako konpromiso maila hartuko duen eta abar. Helburu orokor hauek kontuan hartuta, barrura zein kanpora begirako Planen



AEBEMET deritzon Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz Metodologia erabiliko du plana aurrera eramateko.

Urriaren bukaeran, aldizkaria ixtear zegoela, Euskaltzaleon Elkargunetik, Udaleko euskara planaren zirriborroari emandako erantzuna eta eginiko zehaztapenen (zeinak artikulu honetan azaldu dizki-

zuegun) gainean osatu testuari atxikimenduak biltzeko lanean dabilta. Horrela amaitzen da honakoa: "gure borondatea agertu nahi dugu Udalarekin batera lan egiteko, gasteiztar eta arabar guztiona den euskarak denon arteko bultzada jaso dezan". Honen berri izateko: bagare@hotmail.com edo 635705173 telefonora deitu (Jesus).

AEBEMET I, Zertan datza?

- 1. Urratsa:** Erabilera-plana egiteko erabakia hartzea (urriaren 18an)
- 2. Urratsa:** Bideragarritasun-txostena osatzea
- 3. Urratsa:** Bideragarritasun-txostena onartzea (abendua)

AEBEMET I, Prozedura

- 1- Udalak erabilera-planari ekiteko ERABAKIA hartu**
*HPSri jakinarazi (Hizkuntza Politika Sailburuordetza)
- 2- HPStik bideragarritasun-txostena egiteko txantiloia jasoko du.**
- 3- Bideragarritasun-txostena HPSri bidali, alkateak edo dagokionak sinatutako ofizioarekin batera.**
- 4- HPSk erantzuna emango du hilabete-ko epean.**
- 5- Udalak osoko bilkuran onartu behar-ko ditu:**
*Bideragarritasun-txostena
*HPSren erantzuna
- 6- HPSri udalaren erabakiaren berri eman.**
- 7- Urte honetan AEBENET IIri ekiteko moduan egon, hots, Udaletik kanpo-ko euskara plana.**

• EPEAK

Planak, arlo eta neurri bakoitzeko bere epeak bete behar ditu, beteko diren epeak.

• AURREKONTU ZEHATZA

Planak bere osotasunean zein Planaren arlo bakoitzak bere aurrekontua izan behar du.

• PLANAREN ZEHARKAKO IZAERA

Plana, departamentu jakin bateko lana izan ezezik, Udalaren departamentu guztiak zeharkatzen duen politika aktibo bezala ikusi behar dugu, eta horretarako Udaleko Sail eta departamentu guztiek izan behar dute Planaren berri eta Plana martxan jartzeko borondate argia.

• HIZKUNTZEN ERABILPENAREN UDAL ORDENANTZA

Hizkuntzen erabilera zehazten duen ezinbesteko tresna izanik, Planaren filosofiari zein helburuei jarraituz, Hizkuntzen Erabilpenaren Udal Ordenantza eguneratuko da.

• IZENDAPEN LIBREKO KARGUAK ETA HAUTETSIAK

Bere izaeratik hizkuntz eskakizunik ez duten postu hauek guztiak

Planean kontuan hartu behar dira, eta beste udal langileekin egiten den bezala, egokia ikusiko den hizkuntz gaitasuna eskatuko zaie.

• EUSKARA ZERBITZUA INDARTU

Euskara Zerbitzuak normalizaziorako proposamen eta bitartekoak jartzeko askatasuna eta baliabideak izan behar ditu. Horretarako, Planean adierazten den bezala, beharrezkoa da Normalizatzailerik gehiago izatea eta itzulpenak egiteko beharrak Euskara Zerbitzuaren lana ez baldintzatzea.



• PLANAREN JARRAIPIEN BATZORDEA

Plana indarrean jarri behar bada, lehen azal dutako puntu guztiak betetzeaz gain, Planaren Jarraipen Batzordea jarri behar da abian, Udal Talde Politiko, Euskara Departamentuko Teknikariak eta Plana diseinatzen egon diren Euskalgintza, Hezkuntza, Helduen euskalduntze eta oro har Gizarte Eragile guztien partehartzearekin. Jarraipen Batzordeak Planean proposatzen diren helburu eta neurriak betetzen direla ziurtatu behar du; maiztasun jakin batekin lan egingo du eta informazioa eskatzeko orduan indarra izango du.

Erabaki politikoak dagokien lekuan hartu behar badira ere, lantalde honek izaera ofiziala izango du.

ARABAKO EUSKAL HOTSAK ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA LIBURUAK SALGAI!!!

EZAGUTU ZURE HISTORIA!!
IRAGANAREN EZAGUTZAK ETORKIZUNAREN
INDARTZEA DAKARRELAKO!



- 2 liburu dira: bat EUSKARAZ, bestea GAZTELERAZ
- 256 orrialde
- Salneurria: 19, 8 € (liburudendan)
PREZIO BEREZIA HARPIDEDUN eta
BAZKIDEENTZAT (bulegora etorruta): 17, 5 €
- Honako liburudendetan salgai: Casa del Libro, Zuloa, Arriaga, Albeniz, Ayala eta Study (Gasteizen). Gasteiztik kanpo: liburudenda nagusienetan

Arabako euskal jatorriko toponimiak antzinako biztanleen iragan euskalduna erakusten digu. Baina, errealitate hau baieztatzen duten bestelako lekukotzak al daude? Gure arbasoek menderik mende gehien erabili ohi zuten hizkuntzaren aztarnarik utzi al dute? Erreferentzia zein idazkirik utzi al digute? Zer eman du Arabak euskararen historian? Zer euskara mota mintzo zen?...

...Zalantza hauek guztiak liburu honetan argitu ahal izango dituzue. Edukietan aberats eta bisula oso, dokumentu original ugari, argazkiak eta mapak dituela. Gure, zure, historiaren atal garrantzitsu hau ezagut dezazun, eta aldi berean, emandako datuen bitartez -Aktak, kontu-liburuak, noblezia espedienteak, testamentuak, ezkontzak, inkisizioaren epaiketak, arabarren euskarazko idatziak,...- egiaztatu Araban euskara erabilpen orokorreko hizkuntza izan dela, mende askotan zehar gehienena izaki, eta hainbat garai eta zonaldetan ezagutzen eta hitz egiten zen bakarra.

1992-2002
1992ko
abendua:

Geu Gasteiz
aldizkariaren
1. zk.a
kalean


2002ko
abendua:

Geu
elkartearen,
Geu
aldizkariaren
10.
Urteurrena

ADI!

ARABAKO EUSKAL HOTSAK-ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA
ERAKUSKETA IBILTARIAK ERAKUSKETA IBILTARIA:
AMURRIO: AZAROAK 1-15

LAIA ALDIZKARIA, ETORKIZUNA KOLOKAN



Ruben Argote, koordinatzaileakoa bat

Leire Lopez de Aberasturi
Arg.: Edorta Sanz



Diruak baldintzatutako proiektu interesgarri baten berri eman nahi du GEUK. "Laia" Añanan eta Añanari begira sortu den aldizkaria da, lau ale kaleratu ditu eta bosgarrena bidean dago. Seigarrenik

egongo denik, aldiz, zalantzan dago, proiektuaren bultzatzaileak finantziazio bila baitaude eguntan. Beraz, oraindik ezin jakin 'hiltzera kondenatuta' jaio aldizkari bati buruz ari garen ala aurrean etorkizun oparoa duen argitalpena den "Laia". GEUK 100. alearen jaiaren berri eman nahiko luke, gero!



Añanatik eta Añanan bizi direnentzako aldizkari plurala eta elebiduna da "Laia". Sendadianoko artzain eta gaztagile Tintxo Insaustiren ekimenez eta lagun talde baten lanari esker sortu zen 2002ko urtarrilean. Geroztik lau ale kaleratu ditu bi hilabetetan behin.

Ruben Argote, lan-taldeko kide eta argazkilariak azaldu duenez, "hutsune bat betetzeko asmoarekin" hasi ziren aldizkaria kaleratzeko ahaleginean. Izan ere, egun, Koartangon egiten den "Enza" hiruhilabetekariaz aparte, ez dago Añanan egiten den beste argitalpenik. Ondo egindako eta kulturari buruzko aldizkari serioa da "Enzo", Rubenek azaldu duenez, "baina gaztelera hutsean egina".

Elebitasuna "Laia" proiektuaren hasierako asmoa da. Añana, "euskaraz gutxien hitz egiten den Euskal Herriko zatia da", Argotek gogoratu duenez, baina haur eta gazteei esker berreuskalduntze prozesua martxan da. Horiengan pentsatuz, "umeentzako ipuinak eta gazteentzako gai bereziak" sartzeko asmoa dute "Laia"ko arduradunek.

Orain artean Añanako historia, kultura eta bertako arazoen inguruko artikuluak argitaratu dituzte, besteak beste, baita poesiari tartea eman ere; horretaz gain, eskualdean lan egiten duten gizarte-taldee ere leku egin diete beren kezka eta nahiak azaltzeko.

AÑANA, EUSKARA ETA KULTURA

Añana, euskara eta kultura. Horiek jo daitezke "Laia"ren mamiaren zutabetzat. "Euskal kultura bultzatu eta Añanatik ere herria egitea da gure asmoa", Rubenek dioenez. Horretaz gain, bertako bizilagunentzako informazio erabilgarria ere bultzatu nahi dute "agenda" on bat osatuz. Aldizkaria Añanan bizi diren pertsona guztien etxeetara iritsi da orain arte, "bertan erroldatutako guztiengana". Momentuz dohainik banatzen da eta etorkizunean ere horrela jarraitzeko asmoa dute. Aurrerantzean igande eta jai egunetan besterik ez joan ohi direnei bidali ala ez, eta Añanatik kanpoko norbaitek interesa badu nola moldatu hausnartu eta erabakiko dute. 2.000 aleko tirada nahiko handia dela azpimarratu daiteke, kontuan izanda Añanako 10 herrietan 6.000 bizilagun bizi direla,



Añanan haur eta gazteei esker berreuskalduntze prozesua martxan da

Añanako historia, kultu- ra eta bertako arazoen inguruko artikuluak argi- taratu dituzte, besteak beste, baita poesiari tar- tea eman ere

Euskal kultura bultzatu eta Añanatik ere herria egitea da gure asmoa

erroldaren arabera behintzat.

Guztiengana iritsi nahi den bezala, guztien ahotsa ere izan nahi dute. "Gu ez gara kazetariak, ni langilea naiz eta Tintxo artzaina, eta guk bezala beste edonork ere idatz dezake aldizkarian", dio Rubenek. Bi baldintza baino ez daude: Añanari buruzko ideiak jorratu eta denon ideiei zor zaien errespetuarekin hitz egitea.

Añanatar ororen interesak gordetzeko asmo horrekin, alderdi politikoen babesari uko egiten diote "Laia"ko koordinatzaileek. "Alderdi politikoen publizitaterik ere ez dugu nahi; udalena onartuko dugu, baldin eta administrazio moduan jartzen badute, baina besterik ez", zehaztu du Rubenek.



**Hitza, bihotzaren giltza:
GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

LANA FESTAN

Azken urte hauetan, herri kirolak deritzanek ez dauzkate lehen zituzten ezaugarriak.

Gaur egun, gainerako kirolen antzera, prestakuntza berezia eskatzen dute, batez ere teknika aldetik. Lehen ez ziren inolaz ere horrelakoak; orain kirola diren horiek eguneroko lana ziren.

Zuhaitzak ebakitzeko motozerra da nagusia mendietan, arrantza lehenbailehen kairatzeko badira motordun txalupak, harriak jasotzeko hor daude garabiak eta abar; beraz, herri kiroltako ekintzak ez dira jadanik beharrezkoak, kirol huts bilakatu dira. Izenak ere asko adierazten du, kirola hitzaren ordeaz apustu, joko, proba eta dema erabiltzen ziren, guztietan desafioa eta apustua tartean izanik.

Hasiera batean, eta XX. mendera arte, baserri eta auzoetako giroan bakarrik antolatzen ziren. Eguneroko lanean trebatzen zen baserritarrek aise botatzen zion desafioa auzokoari: "ezetz hainbat kilo belar ordubetea ebaki? - Baietz". Ondorioz apustua laster egina zen. Desafioaren berria zabaldurik, berehala inguruko jendea bata ala besteari alde jartzen zen eta halaxe ikuskizuna prest zegoen. Iturriotzeko (G) belardietan, adibidez, 1925. urtean izandako segalariei arteko apustu bat ikusteko 6.000 pertsona inguru igo ziren mendira.

Apustu handiak ziren maiz; 1909. urtean, adibidez, ahari jokoan nagusi bakoitzak 1.500 pzta jokatu zituen, edo 1890ean estropadetan talde bakoitzak 25.000 arriskatu zituen; garai hartarako diru mordoak, beraz.

Mundu honek ez zuen sobera ospe onik "kultur" jendeari artean, hortik heldu zitzaion izan duen mesprezua eta, askotan, agintarien aldetikako debekua. XIX. mende bukaerara arte baserri auzoetan bakarrik eta ixilpean kasik, lehenbizi peria egunetara, gero herriko plazetara eta azkenik hiriko zezen-plazetara.

Herri kirolak aztertzerakoan bi motatatakoak direla ikusten dugu: animalien probak eta gizonen arteko norgehiagokak: animalien probak eta gizonen arteko norgehiagokak.

Lehenbizikoan artean idi demak, behi, asto, zaldi eta mando probak, ahari, antzara edo oilar jokoak eta asko lasterketak ditugu. Animalien probak direla-eta eztabaidak izan ziren eta dira. 1921 urtean, esaterako, Gipuzkoan idi demak eta hari jokoak debekatu zituzten agintariek; hala ere, urte berean, debekua bertan behera gelditu zen herriaren nahiak irabaziz.

Gizakien arteko lehen artean aizkol jokoa, harrijasotzea, korrika apustua, sega jokoa, sokatira, estropadak, txinga probak, bola jokoa, trontza jokoa, palanka jaurtiketa, harrizulaketa, laia jokoa, esne ontzi, lasto fardo edo artazakuen garraiaketa eta orga jokoa ditugu.

Izenak irakurtzerakoan, bola jokoa izan ezik, aise ohartzen gara eguneroko lan arruntak ari garela aipatzen. Lana festa bilakatua da.

KARLOS ZUBIRIA (Laia-2/14)

Lurrazalaren azpian
ikusirik ezin den
leku ezkutu batean
negu luzeek eta
bizitza berpiztuko duten
sustrai sakonak daude eta
bizitza hori berreskuratzeko
LAIA eta gure eskuak dira
tresnarik erabilgarrienak


ISMAEL RUIZ FRIAS (Laia-1/16)



Zure arropa eta oinetak

www.sarludenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710



Egunerokoa, astalarietatik ostialara

**JANTOKI
BEGETARIANO**

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 68 33



KAIZEDO BEHEKO AINTZIRAKO KONDAIRA

Arratseko azken ordua zen. Neguko egunak laburrak izaten direnez, gauaren iluntasunak berehala beteko zuen guztia. Emakumeak ore prestatu zuen ordu batzuk lehenago eta oramahaian zegoen, oihalen berotan harrotzen. Senarrak egurra prestatu zuen goizean eta orain errautsak kentzen ari zen, egurra ogia egiteko labean erre ondoren. Azken garbitua eman ondoren, labea prest egongo zen.

Andreak ore zati bat atera zuen eta mahaiaren gainean lantzen hasi zen. Aitaren batean ore zati biribil pila bat zeuden mahai gainean, erretzeko prest.

Gizonak, zurezko endaia hartuta, labearen barnealdean ezarri zituen. Senar-emazteen ondoan neska gazte bat zegoen, zerbitzaria, eta guztia garbi-garbi izateaz arduratzen zen.

Behin ogia erreta, gizonak ale guztiak atera zituen; kolore ederra zuten, gainean emandako arrautzari esker. Itxura ezin hobea zuen.

Bat-batean emakume behartsu eta zarpail bat agertu zen janari apur bat eskatzen. Senar-emazteek elkarri begiratu zioten: pena zen ogi distiratsu horiek zatitzea eta ezin zioten ogi oso bat eman. Orduan, emakumeak ore zati txiki bat hartu eta gizonak labean sartu zuen. Baina ogia labetik atera zutenean, aurrekoak baino handiagoa eta ederragoa zela ikusi zuten. Ezin zioten ogi hori behartuari eman. Ore gutxiago hartu zuen hurrengoan, baina emaitza berbera izan zen. Eta zenbat eta ore zati txikiagoak sartu, orduan eta ederragoak ziren opilak.

Senar-emazteak ez zeuden ogi eder haiek emakume hari emateko prest eta, azkenean, bidali egin zuten ezertxo ere eman gabe. Hala ere, alde egiterakoan zerbitzariak bere ogitik zati bat eman zion.

Orduan, behartsuak zuen guztia hartu eta handik berehala alde egiteko esan zion zerbitzariari. Horixe egin zuen, herria utzi eta emakumearen atzetik aldapan gora hasi zenean izugarritzko ekaitza hasi zuen. Zerbitzari gaixoak, larrituta, zapata galdu zuen korrika zihoala eta ezin izan zuen aurkitu, gau iluna baitzen. Ez zuen berriro emakume behartsua ikusi (Andre Maria Birjina zen emakume hura), eta, zerbitzaria, ekaitzaren ondorioz inora joaterik ez zuenez, zuhaitz baten azpian uzkur-uzkur egin zen eta ekaitza baretzen zihoan heinean lokartu egin zen.

Zerua bare zegoen; eguzkia mendi artetik irteten ari zen eta egunsentiko lehen izpiek gertatutakoa erakutsi zioten. Bere bizileku eta lantoki izandako tokian ez zen ez etxerik eta ez pertsonarik ikusten; ur putzu handi bat baino ez zegoen, aintzira handi bat. Eta hobeto ikusteko hurbildu zenean, aintziraren ertz-ertzean aurreko gauean lasterka alde egitean galdutako zapata aurkitu zuen.

Oharra: kondaira hau modu askotara kontatzen da. On Jose Migel Barandiaranen arabera, kondaira hau bera, zenbait aldaketarekin, Euskal Herriko aintzira eta putzu gehienen jatorria azaltzeko kontatzen da.

KOLDO LARRAÑAGA (Laia-0/7)

itzulitako testua

JOSETXO taberna



“ez dago
pintxorik”

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Argazki - Estudioa

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004



SEDUKZIOA

EMAIZ
Sexologia Elkarte

Pertsona guztiak gara erakargarriak. Pertsonak garen heinean, bizitzako esparru desberdinetan besteak erakartzea atsegin dugu (maitatuak eta onartuak izatea).

Pertsonak erakartzeko keinuak egiten ditugu, gauzak esaten ditugu, modu askotara jokatzeko dugu, eta txistezaleak, larderiataleak, esanekoak, berritsuak, isilkorak izan gaitzke. Pertsona batzuentzat jarrera horiek erakargarriak izango dira eta beste batzuentzat, ordea, ez. Ezinezkoa da jende guztia erakartzea.

Ezetz uste al duzu? Zu erakargarria ez zarela pentsatzen al duzu?, JAKINA BAIETZ!

Imajinatu une batez, arrazoia edozein izanik ere, interesatzen zaizun pertsona baten aurrean zaudela (ispilu baten aurrean egin dezakezu). Aztertu zure begirada, zure entzuteko modua, arnasa hartzeko modua, gorputza ezartzeko modua. Soinuak egin ditzakezu, hitz egiten ariko bazina bezala. Zein tonu erabiltzen duzu?, hitz egin edo entzuten duzuneko intentsitatea.

Pentsatu egun zure inguruan dauden pertsonengan, iraganean egon zirenean edo ezagutzen ez dituzun pertsonengan.

Zer sentitzen duzu? Nola sentitzen dituzu normalean egiten dituzun keinuak? Beste keinu berri batzuk iker ditzakezu, normalean egiten ez dituzunak.

Pertsona batzuk nahasirik daude euren bizitzan, desioetan,

identitatean; hain daude arduratuta besteentzat xarmagarriak izateaz, beren ustez besteek egitea espero dutena egiteaz, kontaktua galtzen dutela benetan nahi dutenarekin. Ezinezkoa da guztien gustukoa izatea -aitarena, amarena, lagunarena, adiskidearena...- gure jokabide edo ikuspuntu guztietan. Ezinezkoa da gure alderdi, ekintza edo iritzia guztiak besteentzat erakargarriak izatea ere. Pertsona batzuentzat atseginak izango gara eta beste batzuentzat, aldiz, fisikoki, emozionalki, ideologikoki edo energetikoki gaitzesgarriak izango gara; hori gustuko ez badugu ere. Pentsatu guk ere ez dugula jende guztia atsegin.

Sedukzioa beharrezkoa da eta kontzienteki edo inkontzienteki egiten dugu. Hein handian inkontzienteki egiten dugu, maitasuneko fantasietan edo gure haurtzaroko heroiekin identifikatuta jokabide jakin batzuk izaten ikasi baitugu. Modu horretan zergatik jokutzen dugun ohartzen ez garen heinean, pizten dugun erakargarritasunaz edo gaitzesgarritasunaz at daukagu gure burua.

Sortzen dugun xarmaz ohartzeak norberaren burua, dauzkagun adierazteko modu eta emozioekin, errazago onartzea dakar; edota gure parte bezala sentitzen ez ditugulako komunikazioa zaildu diezaguketen horiek aldatzeko aukera. Ez gara pertsona guztien gogoko izango, horixe behar genuen! Baina bai gure buruarentzat. Gure bizitzak ere gu xarmatu behar gaitu. Bestela, nola bizi gintezke gustuko ez dugun norbaitekin? Nola bizi gintezke gure buruarekin egunero?



Pentsatu une batez zerk erakartzen zaituen beste pertsonengandik:

- Zein erakargarritasun dute zure adiskideak? Pentsatu pertsona horietan eta kontuan izan bakoitza deberdina dela.
- Zer izan da zure bikoteengan erakargarriena? Pentsatu izan duzun bikotearengan edo bikoteengan.
- Zein da, zure ustez, une honetan gustatzen zaizun pertsonaren alderdirik erakargarriena?
- Zein da zeure alderdirik erakargarriena?

Egin galdera hauei buruzko gogoeta eta paper batean idazten saiatu. Harrituta geldituko zara!

Inidia Gula Para Chicas
(Azucena Viletes Garcia /
Itziar Oñariz (jurko))


Ortzi Acosta gimnasta ohia eta Beñat Fontanedaren eskutik
 ("Yo no soy de aquí" izenburupeko inmigrazioaren inguruko Europa mailako
 amateur lehiaketa)

"NI EZ NAIZ HEMENGOA"

Beñat Fontanedak eta

Ortzi Acostak aspaldida-
 nik dute elkar ezagu-
 tzen, Umandi ikastolako
 ikasleak izan baitira
 biak, gainera honi
 Ortziren anaia Beñaten
 lagun mina eta klasean
 ibilitakoa dela gehitu
 behar zaio; beraz, kon-
 fiantza osoz gazte
 hauek laburmetrajea
 egitearen abenturan
 murgildu ziren elkarre-
 kin.

Josune Velez de Mendizabal



UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA
 HEDEGILE kalea (Korreria), 120
 Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



Confecciones
Pinedo
JANTZIAK
 San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
 Tfnoa.: 945 23 39 90

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
 Hedegile kalea (KORRE), 14
 (San Migeleko pasabidea)
 Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

IZARRA TABERNA - JATETXEA
 BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
 Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

// Ideia Ortiziri bururatu zitzaion, telebistan 'Canal+'ek inmigrazioari buruzko laburmetrajeen lehiaketa ikusi eta aurkeztea proposatu zidan", dio Beñatek. Hortik aurrera, erloju kontrako lasterketa abiapuntu, lau eguneko lan mardula garatu zuten. Emaiza, Estatu osoko film laburren lehiaketan lehenengo hogeien arteko postua lortzea. "Ez dago gaizki lehendabiziko aldia izateko", ez, batez ere 70 korto aurkeztu zirenean.

Lanerako baldintza eta ezaugarri onetako bikotea osatzen dute Ortizik eta Beñatek; izan ere, Beñat ikus-entzunezkoen munduan dabilen heinean, Ortizi zine espezialista lanean murgiltzeko ahaleginetan ari da. Beñatek azaltzen duenez, "orain arte zenbait laburmetraje egin ditut, baina denak DV edo beheragoko formatuetan burutuak, hots, bideoz; zinema munduan lekuren bat izatea gustatuko litzaidake baina utopia hutsa da, zine munduan pastela banatuegia baitago". Ortizi, berriaz, egun Japonen dago "Cirque du Soleil" taldearekin lanean, "beraz, momentuz elkarrekin genituen proiektuek itxaron beharko dute", dio Beñatek, "nik



nire kabuz nireak egiten jarraituko dudan arren".

TOMATEEN ISTORIA

Ortu batean kokatzen da istorioa, bertan ur falta dela-eta beste leku batera bizitzera alde egiten duten tomateak ditugu protagonistak, eta hori bera kortoaren haria. "Epea amaitzen zenez, bakarrik izan genituen lau egun grabatzeko", azpimarratzen du Ortizik, "beraz, Narbaxan, nire osaba-izeben etxeko baratzean grabatzea erabaki genuen". Ortizik eszenatokia sortu, kamara eta bestelakoak bilatu eta produkzio lanak egin zituen; Beñat, aldiz, grabaketaz eta edizioaz arduratu zen. Hain denbora urrian laburmetrajea egitean oztopoak sortzen dira; hauei buruz aritu zen Beñat: "Esan bezala, grabaketa guztia gu bion artean goiz bakar batean

burutu genuen. Ostiralean bidali behar genuen kortoa Madrilera, eta asteazken goizean hasi ginen grabatzen, goizeko 6.00etan (aurreko egunean Ortizik baratza eraiki zuen). Dena zitsu bizian egin behar izan genuen, arratsalde horretan hasi nintzen editatzen, ia geldiuenerik gabe ostiral arratsalderarte (Ortizi Madrilan zegoen azken egun hauetan iragarki bat grabatzen)". Oztoporik handiena, osteraz, Beñaten aburuz, tomateak animatzea izan zen, ahotsa ere jarri behar izateaz gain. Baina azkenean lortu zuten!

'Canal+' Frantziak antolatzen zuen lehiaketa honetan, estatu espainoletik bidalitako zinten artean 20 aukeratu zituzten Frantziako finalera bidaltzeko (bertan Frantzia, Italia, Belgika, Herbehereak, Danimarka, Polonia-koak... zeuden). "Gu aukeratu hoge horien artean gelditu gara". Telebistan laburmetrajearen zatitxo bat emititu bazuten ere, korto osoa (5 minutu eta 30 segunduko iraupena duena) plus.es web orrian ikus daiteke.

Ez da gauza makala gasteiztar hauek beren lehen ekinaldian erdietsi dutena.

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

vitrales
BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

MERKURIO-KADMIANOAN
%0a

**CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

**CEGASA
INTERNATIONAL
ALKALINA**

**CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE**

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis



GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

Zure denda erotikoa

SEX



Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

-GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA: IKUS. 8. ORRIA

GEU ELKARTEAREN EKIMENEZ

-GAUEKOAK. UDAZKENA

[ARGIBIDEAK: 945215161 / WWW.GAUEKOAK.ORG]

ASTEBURUKO GAUETAN AISIALDIAZ GOZATZEA.

GAUA GOZATU

ABENDUAREN 21 ERA, OSTIRAL ETA LARUNBATERO
GAUEAN

-GEU ELKARTEAREN EKIMENEZ:

'EUSKARAZ BUSTIZ' ASTEBURUA

ALDABE ANTZERKIA (ALDABE G.E.)

AZAROAK 1-2

(IKUS. 7. ORR.)



-“EUSKARAZ BUSTIZ” ASTEBURUAZ GAIN, **EUSKARAZ**
GOZATZEKO GAUEKOAK-EK HONAKOA ERE
ANTOLATU DU:

IZENA EMATE- TAILERRAK:

INFORMAZIOA: ALDABE GIZARTE ETXEAN

- GITARRA ESPAINARRA: AZAROAK 9. 22.00-0.00
- AEROBOXING: AZAROAK 8, 15, 22 (OSTIRALAK). 22.00-0:00

EKINTZA IREKIAK:

- SUKALDARITZA: AZAROAK 8, 30. 22:00-0:00
- LARRUGINTZA: AZAROAK 18-29 / ABENDUAK 13. 22.00-0.00
- PERKUSIOA: AZAROAK 9. 0.00-2.00
- BEIRA-ALEAK: AZAROAK 9, 16. 22.00-0.00

-1. ANTZERKI ERAKUSTALDIA:

ANTZERKI TALDE LEHIAKETA. BALDINTZAK: ANTZERKI
TALDE AMATEUR BATEKO KIDE, TALDEKO TEKNIKARI ETA
ARTISTEN % 60 14 ETA 30 URTE BITARTEKOA ETA
ARABARRAK IZATEA

IZENA EMATEKO EPEA: ABENDUAK 7

-TXARTEL LEHIAKETA

(14-30 URTE BITARTEKO ARABAKO GAZTEEI ZUZEN-
DUA): GAUEKOAK 2003 AISIALDI PROGRAMA IRAGART-
ZEKO KARTELA HAUTATZEKO LEHIAKETA
EPEA: AZAROAREN 29A BAINO LEHEN

ETA ADI GAUEKOAK-EN GAINONTZEKO ESKAINTZEI!

SUMMA IV JARDUNALDIAK

ELKARTE MUGIMENDUA ETA PARTEHARTZEARI
BURUZKOAK

AZAROAK 21, 22, 23

VILLASUSO/GOIURI JAUREGIAN

ANTOLATZAILEA ETA INFORMAZIOA:

ERDU, ELKARTE ETA BOLONDRESENTZAKO AGENTZIA
945161687

XXVII. NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIA

ADI EUSKARARI EMAN ZAION TARTEARI!!!

-AZAROAK 3, 18.00ETAN: ARRATOITXO
MARIPERTXENTA & KATU BOTADUNA.
TEATRO KOLLINS CLOWN. PRINCIPAL ANTZOKIAN.
SAIO FAMILIARRA



arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com



Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39



HITZALDI ZIKLOA: SORTALDEKO LAUTADA

HISTORIAN ZEHAR:

GAURKO TRESNEZ BALIATUZ,
JOANDAKO DENBORAK
ARGITU (URRIA-AZAROA,
OSTIRAL ETA LARUNBATERO)
AGURAINGO HARRESI
ARETOAN

-AZAROAK 8,

19.30ETAN: SORTALDEKO
LAUTADA

BEHE ERDI AROAN: HIRIBIL-
DUA, MUGA ETA LEINUAK.

HIZLARIA: JON ANDONI
FDZ. DE LARREA JAUNA
(UPV-EHU)

-AZAROAK 9, 11.00ETAN: ALAIZA ETA GAZEO:

ARABAKO HORMA-PINTURA GOTIKOAREN BI IKUSPUNTU
DESBERDIN (AUTOBUSEZ ALAIZA ETA GAZEO HERRIETA-
RA JOANEZ). HIZLARIA: JOSE JAVIER LPZ. DE OCARIZ
DOKTOREA-UR

-AZAROAK 15, 19.30ETAN: HERRI-LURREN ETA
PARTZUERGOEN KUDEAKETA, ERABILERA ETA
USTIAKUNTZA: ENTZIAREN ETA URBIAREN ADIBIDEAK.
HIZLARIA: ALVARO ARAGON DOKTOREA (UPV-EHU)

-AZAROAK 16, 12.00ETAN: ARO BERRIKO BI
ARTE-LANTEGI: AGURAINGOA ETA MUNAINGO
ARGITARAGABEA. HIZLARIA: PEDRO ETXEBARRIA
DOKTOREA (UPV-EHU)

-AZAROAK 22, 19.30ETAN: ENERGIA ITURRI
BERRIAK ETA ARABAKO NEKAZARITZAREN GAURKOTZEA:
AJURIAK BETE ZUEN EGITEKOA. HIZLARIA: RAMON
OJEDA DOKTOREA (UPV-EHU)

-AZAROAK 23, 19.30ETAN: **EUSKARA KULTURAN:**
ORAINA ETA GEROA. HIZLARIA: BERNARDO ATXAGA

-AZAROAK 29, 19.30ETAN: ZERTARAKO HISTORIA?
HIZLARIA: ANTONIO RIVERA DOKTOREA (UPV-EHU)
INFORMAZIOA: 945312535

HERRI MUGIMENDUARENTZAKO FORMAZIO IKASTAROA

INFORMAZIOA: JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA
(943275561-JOXEMI@JOXEMI.ORG)



GAIETAKO BATZUK:

ITZULPENGINTZA (AEK); GARAPEN
PORTSONALA, EZAGUTZA ETA
IDENTITATE FEMENINOA
(ANDREA);

DROGAMENPEKOTASUNEN KOMU-
NITATE PREBENTZIOA, GURE HERRI
MUGIMENDUEN DEMOKRATIZAZIO-
RUNTZ (ASKAGINTZA ETA IZADIA);
INFORMATIKA (IBAINET); EUSKAL
HERRIKO HISTORIA, EMAKUMEA
EUSKAL HERRIKO HISTORIAN (IPES-BIZKAIA);
INGURUNEAREN AZTERKETA, BILEREN DINAMIZAZIOA
(KATTAMIXAR-URTXINTXA); PERBERTSIOAK ALA BEREZITA-
SUN SEXUALAK? (ZIRRILDA)



MIGUEL DE UNAMUNO SAIKERA LEHIAKETA

EPEA: AZAROAK 15

ANTOLATZAILEA ETA INFORMAZIOA:

BILBOKO UDALEKO KULTURA ETA TURISMO SAILA

2002. PATXI ALDABALDETRECUREN

OMENEZKO IKERKETA-BEKA:

-ESPARRU SOZIO-KULTURALAREKIN ZERIKUSIA DUTEN
LANAK (HISTORIA ETA GIZARTE ZIENTZIAK ORO HAR,
ETNOGRAFIA, LINGUISTIKA, TURISMOA ETA DEBA
BEHEKO ESKUALDEAREKIN ERLAZIONATURIK EGON
DAITEZKEEN ESPARRU SOZIO-KULTURALEKO BESTE IKER-
KETA GAIK. ELEBITASUNA ETA DEBAKO TOKI-EREMUA
BALORATUKO DIRA. 2002. URTERAKO GAIA
DEBAKO EUSKARA DA, UDALERRIARI DAGOKIONA.
-ONDOREN, "DEBA BILDUMA" DEITURIKO
LIBURU SORTAN ARGITARATUKO DIRA
-PROIEKTUEN AURKEZPEN-DATA: AZAROAK 15
ANTOLATZAILEA ETA INFORMAZIOA: DEBAKO KULTUR
ELKARTEA, OSTOLAZA KALEA, 12. 20820 DEBA

PARRAL. AZAROKO AGENDA

- 5EAN: VIENTO DE LOCOS (ROCK-BLUES)
- 19AN: ITZIAR REKALDE (IPUIN KONTALARIA)

* BESTE BI EKITALDIK KONFIRMATZEKE DAUDE
ORDUA: 20.30ETAN

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43

iRUSTA

poteo eta
pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

HIKAATENEO GASTEIZ.

AZAROKO AGENDA

[PINTORE KALEA, 13-BEHEA.

Tfnoa: 945288192. FAXA: 945203509 .

E-MAIL: HIKAATENEO@IKUSNET.COM]

-**6AN**, ASTEAZKENA, 20.00ETAN:

HITZALDIA: "MI VIDA SIN DINERO" LIBURUAREN
AURKEZPENA. HEISSE MARIE

-**13AN**, ASTEAZKENA, 20.00ETAN:

POESIA SAIOA. XUXURLAK TALDEA.

"LOS DÍAS DUROS" (EMAKUMEEKIKO BIOLENTZIA-
REN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAREN HARIRA)

-**20AN**, ASTEAZKENA, 20.00ETAN:

HITZALDIA: "EXPERIENCIAS EN EL FORO SOCIAL
DE FLORENCIA" (FORORA BERTARATU ZENBAITEN
PARTEHARTZEAZ)

-**21EAN**, OSTEAGUNA, 20.00ETAN:

MAHAINGURUA: "SITUACIÓN Y PERSPECTIVA DE
LOS MOVIMIENTOS SOCIALES EN EUSKAL
HERRIA". KOLEKTIBO DESBERDINETAKO KIDEEN
PARTAIDETZAZ

-**25EAN**, ASTELEHENA, 20.00ETAN:

HITZALDIA: "BRASILGO HAUTESKUNDEAK.
BRASILGO LANGILEEN ALDERDIA (PT), GARRAN-
TZI HANDIKO ESPERIENTZIA POLITIKOA". RAUL
PONT, PORTO ALEGRE-KO ALKATE OHIA ETA
PTKO KIDEA.

-**26AN**, ASTEARTEA (ORDUA KONFIRMATZEKE):

TAILERRA: DEMOCRACIA PARTICIPATIVA (UDAL-
KUDEAKETARI APLIKATUA). RAUL PONT

-**27AN**, ASTEAZKENA, 20.00ETAN: GASTEIZKO
IRAKURLE KLUBA (GEU ELKARTEAREN EKIMENEZ)
HILABETE HONETAKO LIBURUA: JAVIER CILLERO,
"HOLLYWOOD ETA BIOK"

MODERATZAILEA: IBAN ZALDUA

(DERRIGORREZKOA: LIBURUA IRAKURRITA
EKARTZEA ETA HITZ EGITEKO GOGOIA)

KULKI

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

www.kulki.org

EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33



XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 · GASTEIZ



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxe: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



**LIZARRALDE
SOINYA**

TXALAPARTA, S.L.

945 226 977
GASTEIZ

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA



**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



azkarprint
imprenta / inprimategia

Helbide berria...

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ




iTURRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK IGANDERA
IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK





ENVIOS Y DISTRIBUCIONES **ARABA** S.L.

BIDALKETAK ETA BANAKETAK

20 URTE GASTEIZEN

- **KORRESPONDENTZIA BANAKETA**
- **MARKETING ZUZENA**
- **LOGISTIKA ZERBITZUA**
- **MANIPULATZEA**

Ansoleta Industrialdea

Aratz kalea 22, behea

Tlfnoa.: 945 15 06 28

Faxa: 945 15 08 74

01006 GASTEIZ

E-posta: endistriaraba@euskalnet.net



EUSKAL TALDEEN EKIPAZIO OFIZIALAK

ERREALA AURRERA!



KAMISETA

HELDUAK. NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL • XXXL

51,00 €

AUPA OSASUNA!



KAMISETA

HELDUAK. NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

51,00 €

AUPA ATHLETIC!



KAMISETA

HELDUAK. NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

54,06 €

ALAVES AURRERA!



KAMISETA

HELDUAK. NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

52,00 €

EUSKAL SELEKZIOA



HELDUAK. NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

51,03 €



DEI JEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN

3,67 €
**BIDALKETA
GASTUAK**

Leitu!

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA